

"Gu hemen bagaude, dantza eta erromeriei esker da neurri handi batean". Sabin Bikandi musikari, musikagile eta dantza maisuak erromeriak aldarrikatzen ditu eta, horretarako, BANDtzaldia ikuskizuna antolatu du berak sortutako AIKO taldeak.

Erromeriei emandakoa itzultzeko BANDtzaldia

Euskal Herriko banda onenekin herriz herri dabilen erromeria ibiltaria da BANDtzaldia eta ekainaren 25ean, 19:30ean, Untzagan izango dugu **Eibarko Musika Banda** eta **Kezka Dantza Taldea** rekin. Ikus-entzuleen gozamen eta musikak antzina zuen funtsa eta esanahia errebindikatzen ditu kontzertu-erromeria honek, *"XXI. mendean erromerien ohitura berreskuratuz"*.

2015ean musika konposizio onenaren Max Saria jaso zuen Bikandik esan digunez, *"azken hamarkadetan dantzaren patri-monioa dantza taldeen eskuetan utzi dugu eta sarritan dantzaren berezko funtzioa ahaztu dugu"*. Euskal Herrian dantza bikote-dantza zela dio, lagunekin erromerian aritzea. *"Dantzaren funtzio nagusia kortejoa izan da"*.

Herrietako musika bandek zuten garrantzia azpimarratzen du Bikandik. *"Orain dela ehun urte jendeak ez zeukan irratirik ez ezer, eta banda bat entzutea izugarria zen, esperientzia itzela, oilo ipurdia jartzekoa"*. Erromeria sozializatorako espazio garrantzitsuena zen bere ustetan, eta hori da proiektu horren abiapuntua.

Jotak, mazurkak, pasodobleak, habanerak eta boleroak izango dira entzungai, besteak beste. Banda izango da protagonista eta *"gure musika entzungo da, bandak jotakoa eta gaur-gaurkoa"*. Dantzei dagokienez, *"aspaldi egiten ziren dantzak*



eta gaur egiten ditugunak aurkeztuko ditugu". Izan ere, Bikandik azpimarratzen duen moduan, *"gauza batzuk, zaharrak izanik, berriak dira gaur egun"*.

Herritar guztiei zabaldu die Bikandik BANDtzaldia ikustera joan eta dantza egiteko gonbidapena. *"Printzipioz, edozeinek egin dezake dantza. Musikak gorputzaren erritmoa markatzea, lagunekin dantzatzea eta ondo pasatzea da garrantzitsuena"*.

Renove plana

% 30^{eko} deskontua*
zure betaurreko berrietan.

*Kontsultaren baldintzak www.generaloptica.es

Zuloaga, 1
esq. Toribio Etxebarria • EIBAR

General Optica

KALITATE ETA ZERBITZUA MEREZI DUZULAKO

GOIKO-LUZ
OTAOLA 13
943200883